*Balentina Lizarralde Eskibel*

*Antzuola, Gipuzkoa (1928-2011)*



Aurkibidea

# Biografia



Arrandariozaeta baserrian jaio zen, zazpi anai-arrebatatik gazteena. Aita bertakoa zen eta ama, berriz, orduan Aretxabaletakoa eta gaur Arrasatekoa den Bedoña auzoko Urkamendi baserrikoa. Sei urtetik hamaikara arte ibili zen eskolan. Antzuolako eskola publikoan hasi zen; gerrako etenaldian Oñatiko Garagartza auzoko Sarramendiko eskola berrian jarraitu zuen, eta gerra Antzuolatik urrundu zenean bertan bukatu zituen ikasketok. Martin anaia galdu zuen gerran. Bizi guztia eman du baserrian: jaiotetxean ezkondu zen arte, eta gero Galartza auzoko Bereterio baserrian, bertako Juan Kruz Mujikarekin ezkonduta. Zortzi seme-alaba izan zituzten.

# Zintak

### ANT-090

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Data**: 2010-09-25
- **Iraupena**: 79 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea

# Pasarteak

## 1. Eskolara "txarrittan egin" zutenekoa

- **Erref**: ANT-090/004
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:05:43. **Bukatu**: 00:07:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

**Laburpena**:
<p>Gerrako etenaldian Oñatiko Garagartza auzoko Sarramendiko eskolara joan zen. Eibarko eta Arrasateko bi lehengusurekin batera joaten zen

bertara. Egun batean "<a href="http://www.bergarakoeuskara.net/node/173532">txarritan egin</a>" zuten (piper egin) eta txabola batean egon ziren. Baina egun hartan, aitak hilabete hartako eskolak ordaintzeko dirua eman zion eta iluntzean ezin zuen itzuli diruarekin etxera. Eskola hori non zegoen azaltzen du.</p>

## 2. Eskolan baba-lapikoa bazkaritarako

- **Erref**: ANT-090/005
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:07:48. **Bukatu**: 00:09:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

**Laburpena**:
Gerrako etenaldian Oñatiko Garagartza auzoko Sarramendiko eskolara joan zen. Bakoitzak bere babak eramaten zituen eta maisuak prestatzen zuen bertan jateko.

## 3. Lasto artean ezkutatuta lan ez egiteko la

- **Erref**: ANT-090/009
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:13:37. **Bukatu**: 00:14:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

**Laburpena**:
Itulan ez egiteagatik askotan lasto pilan ezkutatzen ziren. Itulan egin, garia jo, arbia erein... behar izaten zuten eta ez zuten gustuko. Ez baldin bazuten ondo egiten demandan egiten zien, horregatik ezkutatu egiten ziren.

## 4. Txuntxurruska, tortoloska...; garizuman pilotan ez

- **Erref**: ANT-090/011
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:15:30. **Bukatu**: 00:17:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna

**Laburpena**:
Txori-kabiak topatzen jolasten ziren. Txuntxurruska jolasa azaltzen du. Txirikiletan garizuman baino ez zuten jolasten. Abadeak ez zien uzten garizuman pilotan aritzen.

## 5. Gazta egiten etxea erre

- **Erref**: ANT-090/014
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:18:45. **Bukatu**: 00:21:17

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

**Laburpena**:
Gazta egiten zeudela, gaztari kea ematen, etxea erre zitzaien. Kea zelan egiten zuten azaltzen du. Ez zen etxe osoa erre, baina bai hondatu. Berak hiru urte zituen eta ez du gogoan auzokoek zelan lagundu zuten. Ez zuten ganadurik galdu.

## 6. Neba galdu zuen frontean

- **Erref**: ANT-090/016
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:21:37. **Bukatu**: 00:22:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

**Laburpena**:
Ez du gogoan gerran soldaduak batetik bestera ikusteaz, baina bai Elgetara zihoazen hegazkinak ikusi zituela. Neba Francoren aldekoek eraman zuten frontera eta Katalunian hil zen. Gorpua etxera ekartzea lortu zuten.

## 7. Gerra garaian gatzura jateko

- **Erref**: ANT-090/019
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:23:54. **Bukatu**: 00:25:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

**Laburpena**:
Gerra garaian kanpoko jendea izan zuten etxean. Garai hartan normalean txerrientzako zen gatzura ere aprobetxatzen zuten jateko.

## 8. Neguan ardiak etxean

- **Erref**: ANT-090/024
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:30:12. **Bukatu**: 00:30:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

**Laburpena**:
Ardiak neguan etxean eta etxe inguruko larreetan izaten zituzten. Elurra egiten zuenean, ura edatera baino ez zituzten ateratzen.

## 9. Askoren artean zatitutako lursaila

- **Erref**: ANT-090/026
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:31:26. **Bukatu**: 00:34:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak

**Laburpena**:
Zelaiak etxetik urrun zeuzkaten. Bazegoen lursail bat baserritarren askorena zena eta abuztuko egun batean zabaltzen zutena belarretan joateko; gainerako egunetan ezin zen joan.

## 10. Gari lanak auzolanean

- **Erref**: ANT-090/029
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:38:05. **Bukatu**: 00:39:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

**Laburpena**:
Garia matxakearekin jotzen ezagutu du beti. Beraien auzoan hiruk motorrarekin jotzen zuten eta beste batek txanketean, eskuz. Auzolanean egiten zuten lan hori.

## 11. Gerraostean eskuko errotekin eho

- **Erref**: ANT-090/031
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 00:40:22. **Bukatu**: 00:41:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

**Laburpena**:
<p>Antiguako errotara joaten ziren. Arrasateko Elman eskuko errotak egiten zituzten eta gerraostean, errotak itxita zeudenean, haiek erabiltzen zituzten. Garia ehotzen zuten eskuko errota haiekin.</p>

## 12. Mezara lasto-azaoaren argipean

- **Erref**: ANT-090/034
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:43:20. **Bukatu**: 00:45:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

**Laburpena**:
Mezara lasto-azaoa piztuta joaten ziren. Farolaren argiak argitasun gutxiago ematen zuen eta lauzpabost joanez gero ez zen behar beste ikusten. Hiru edo

lau azao behar zituzten kalera bajatzeko. Sei eta erdietako mezara joaten ziren; gurasoak, ostera, hamarretako meza nagusira. Aita meza ostean geratzen zen lagunekin, baina ama etxera bueltatzen zen.

## 13. Antzuolatik irtetzeko aukera gutxi

- **Erref**: ANT-090/038
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 00:52:20. **Bukatu**: 00:54:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

**Laburpena**:
Antzuolara baino ez ziren joaten gaztetan, ez zuten beste inora joateko modurik. Trenetik etxera bide luzea zuten. Inoiz Arantzazuraino oinez joan izan ziren.

## 14. Ezkontza bazkaria "bandixua"n

- **Erref**: ANT-090/040
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:55:33. **Bukatu**: 00:57:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

**Laburpena**:
<p>Ezkontza-bazkaria baserrian egin zuten. Txahala jan zuten. Lagun asko batu ziren: lehengusu-lehengusinak ez zituzten gonbidatu, baina osaba-izekoak bai. "<a href="http://www.bergarakoeuskara.net/node/159663">Bandixua</a>" beteta egon zela dio. "Bandixua" zeri esaten dioten. Bazkaria bidaiatik etorri ostean ospatu zuten.</p>

## 15. Sepulturak

- **Erref**: ANT-090/048
- **Iraupena**: 0:00:43. **Hasi**: 01:06:24. **Bukatu**: 01:07:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

**Laburpena**:
Elizako sepulturak zelan ziren azaltzen du.

## 16. Abadearentzako opariak

- **Erref**: ANT-090/052
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 01:09:13. **Bukatu**: 01:10:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

**Laburpena**:
Abadeari buldak, sutarako egurra, garia... ematen zien. Kontzezio Egunez oilaskoa ere eramaten zien batzuk.

## 17. Jatorduak

- **Erref**: ANT-090/057
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 01:15:46. **Bukatu**: 01:17:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

**Laburpena**:
Gose urteetan, baba zegoenean egunero jaten zuten baba. Morokila (taloa eta esnea), berakatz-salda, gaztaina erreak... jaten zituzten. Domekatan garbantzua eta okela tomatearekin.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
*2025-12-12*

**CC-by-sa** | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com